

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gordexolako Udala**

2016ko otsailean ekaitzak udalerrian eragindako kalteak konpontzeko beharrezkoak diren obren Proiektua kontratatzeko espedientea dela eta, Udaltzaren zenbait eskumen alkatetzari eskuordetzea.

Udalbatzak 2017ko abenduaren 28ko ohiko osoko bilkuran, 2016ko otsailean ekaitzak udalerrian eragindako kalteak konpontzeko beharrezkoak diren obren Proiektua kontratatzeko espedientea dela eta, Osoko Bilkuraren honako eskumen hauek alkatetzari eskuordetzea erabaki zuen:

«2016ko otsailean ekaitzak udalerrian eragindako kalteak konpontzeko beharrezkoak diren obren Proiektua kontratatzeko espedientea dela eta, Osoko Bilkuraren honako eskumen hauek alkatetzari eskuordetzea:

- Obra ziurtagiriak onestea, azken ziurtagiria barne.
- Obra-onarpena.

Erabaki honen bitartez emandako eskuordetzea, prozeduraren izapidetzeari loturiko ahalmen guztiak barne hartzen ditu, baita hirugarrenei ukitzen dizkien administrazio egintzak ebazteko ahalmena ere.

Erabaki hau indarrean izango da hartzen den egunaren biharamunetik hasita. Nolanahi ere, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.»

Argitara ematen da guztiek jakin dezaten.

Gordexolan, 2018ko urtarrilaren 23an.— Alkatea, Angela María Eguía Liñero